



ANDOAINGO UDALA



PARKE ESTALIAK

2018 urterako aurrekontuen akordioan aurreratu genuen bezala, Andoaingo Udalak 200.000 € bideratuko ditu aurten haur parkeak estaltzeko. Orain arte burutu ezin izan den eta Andoainek duen behar handi bat konponbidean jartzeko gure borondatea adierazi nahi dugu modu honetan. 200.000€ hauek 2017 urteko gerakinetik bideratuko dira, eta behin proiektu definitiboa egiten denean jakingo dugu zein den aurrekontu zehatza.

Gaurko prentsa ohar honen helburua, hain zuzen, zein haur parke estaliko den erabakitzeko prozedura aurkeztea da. Izan ere, gure asmoa da herritarren esku uztea erabakia.

Horretarako, parte-hartze prozesu bat jarriko dugu martxan, non herritarrek euren aukerak bozkatu beharko dituzten. 16 urtetik gorako andoaindar guztiek hartu ahal izango dute parte boto emate honetan, apirilaren 23tik 27ra gauzatuko dena Udaletxeko Ataria Herritarren Arreta Zerbitzuan, goizez, 8:30etatik 14:00tara, eta arratsaldez asteartea, asteazkena eta ostegunean 16:00etatik 19:00etara.

Boto-papera udaletxean bertan eskuratu ahal izango da eta bi bloke egongo dira aukeratzeko: A blokean herriaren beheko aldean kokatutako parkeak egongo dira, eta B blokean goiko zonaldean kokatutakoak. Bloke bakoitzetik bana aukeratu ahal izango da. Norbaitek beste parke bat proposatu nahi badu, "besteak" atala ere izango du, eta bertan idatzi ahal izango da. Baldintza bakarra, geografikoki irizipide hori errespetatzea izango da.

Behin bozketa amaituta, apirilaren 27an, ostiralean, udaletxeko pleno aretoan, zenbaketa egingo da. Irekia izango da zenbaketa hau. Zenbaketa honetan, aukera guztiak "ranking" moduan antolatuko dira, eta horren arabera, aurrekontuak eskatuko dira. Dugun diru partidaren arabera ikusiko dugu parke bat edo bi estaltzeko aukera dugun.

Lehen aldia da Andoainen horrelako prozesu bat aurrera eramango dela. Eta herritarren artean guk dugun ilusio berarekin hartzea espero dugu. Prozesu sinplea prestatu dugu. Uste baitugu, lehenengo izanik, garrantzitsua dela ondo ateratzea.

Parkeak estaltzeko beharra herritarrek behin eta berriz galdegiten duten eskaera bat da. Eta herritarrak izango dira nondik hasiko garen erabakiko dutenak. Datozen egunetan eskuorri bat iritsiko da etxe guztietara azalpen guztiekin, eta bideo bat ere zabalduko dugu prozesuaren zehaztasunak jasoz. Hala ere, edozein herritarrek zalantza izanez gero, alkatetzara zuzendu daiteke, bertaratuz, telefonoz (943300829) edo e-postaz (alkatetza@andoain.eus)

Amaitzeko, herritar guztiak prozesu honetan parte hartzera animatu nahi ditugu. Etorkizunean horrelako edo bestelako parte hartze prozesu gehiago egon daitezen bermatzeko modurik hoberena baita egiten direnak arrakastatsuak izatea.

Andoainen, 2018ko apirilaren 12an

